



## 6 BULETINA

### Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

Alarma Egoeraren 6. eguna. 2020ko martxoaren 21<sup>a</sup>, larunbata.

Ostirala, hilak 20ko Kudeaketa / Ekintzak

#### GAUR: XENOFIARIEN ETA ARRAZAKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

##### ERANKUNDEEI EGINDAKO ESKAERAK ETA DAUDEN BEHARRAK

Kale egoeran dauden pertsonentzako jarritako baliabideak betetzen doaz. Udaletxeak Atano pilotalekuan prestatutako espazioa beteta dago. Asteburuan zehar, kale egoeran dauden pertsona gehiago sartuko dira Errenteriko udal aterpetxera, 50 pertsona hartzeko gaitasuna izanik. Egoera hau aurrerapauso handi bat da; gaur egun, 45 pertsona daude La Sirenan, 87 Atanon, 42 Hotzaldin eta 22 Aterpetxean. Guztira, 200 pertsona inguruz ari gara, Irungo datuak izan gabe.

Pertsona hauekin lan egiten dugunok aspalditik eskatzen dugun bezala, datu hauek argi uzten dute baliabideen beharra zenbatekoa den. 200 pertsona hauetatik, 64 Caritas-en menpe daude.

Baliabide hauek aurrera eramateko kontratatzen ari diren langileei dagokienez, profesional gutxiegi kontratatu direla uste dugu. Boluntarioekin lan egitea aproposa dela uste dugu, beti ere profesionalen lana indartzeko helburuarekin eta ez ordezkatzekoa. Sortu daitezkeen egoera zaileri aurre egiteko prestatuta dauden profesionalak behar direla uste dugu.

##### Baliabide hauetan dauden pertsonekin esku-hartzea

Gaur egun, baliabide publikoetan etxebizitzarik ez duen pertsona kopuru handi xamar bat dago, beraien beharrak direla eta, gizarte zerbitzuen menpe bizi direnak gehienetan. Pertsona hauei merezi duten arreta ematea ez da gauza erraza, batzuetan beraien beharreatatik eta beste batzuetan gizarte zerbitzuek duten lan karga handiarengatik (maiz, langile eta baliabide kopuru murriztua izateagatik).

Hori dela eta, oraintxe bertan egoera ahul hauetan dauden pertsonekin lan egiteko aukera apropos batean gaude. Egoera honek beraien zailtasunak, nahiak, abileziak edota beharrak ezagutzeko aukera eder bat ematen digu. Lan hau, modu erantzulean aurrera eramateko, arreta pertsonalizatuaren bidez egin behar da, eta baliabideak erabiltzeaz gain aurrera begira gizarte txertatzeko planak diseinatuz besteak beste. Bi urtez behin, pertsona hauen egoeren informazioa eskuratzeko *Kale Gorrian* proposamena ateratzen da, eta normalean izaten diren baldintzak eskasagoak izanik, momentu hau aukera aparta izan liteke ekintza aurrera eramateko.

Kolektibo honen dibertsitatea dela eta, gizarte zerbitzuek hartzen dituzten neurriak pertsonalizatuak izan behar dira efizienteak izan daitezen. Azken esperientzietan argi ikusi dugun bezala, langile eta boluntarioen asmo onak ez dira nahikoak pertsona hauen beharrak asetzeko eta beraien bideetan laguntzeko.



## 6 BULETINA

### Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

Egoera honetan, emakumeen egoera bereziki nabarmentzekoa da. Aipatzekoa da emakume hauek duten ikuspen falta, nahiz eta gizonezkoen antzera baliabiderik gabe aurkitu arren, eta bide zailagoak eginez laguntza berberetara jo arren.

Aprobetxa dezagun egoera hau pertsona hauen errealitateaz dugun ezagutza handitzeko. Ez ditzagun laguntza guztiak oheak eta janaria emateari baldintzatu, hauek oso garrantzitsuak izan arren. Baliabide hauetan egotea gizarte zerbitzuekin duten harremana indartzeko aukera aproposa izan liteke, baita konfinamendu egoera honetan hain beharrezkoa den entzumen eskaintza emateko ere. Guztiok bezala, pertsona hauek entzunak izateko beharra dute eta beraien egoera ere “normalizatze” nahia izan dezakete.

Egoera honek denbora eskaintzen digunez, lan hau egiteko aukera aprobetxatzeko asmoa dugu. Hori dela eta, gaurko egunean proposamen hau Gizarte Ekintzako delegatuari bidaliko diogu, gure ustez aproposak izango liratekeen lan-taldeak proposatuz proposamena aurrera eramateko (eskarmentua eta formakuntza dutenak).

**Elikagaiak.** Sareak egiten duen eguneroko banaketan, atzo pertsona dezente gutxiago etorri zirela nabarmendu genuen. Batzuk udal baliabideetan egoteagatik, eta beste batzuk kontrolak direla eta mugitzeko duten beldurrarengatik. Gainera, aipatu izan dugun bezala, kontuan eduki beharrezkoa da pertsona dezente udal logeletan daudela janaria erosteko dirurik gabe. Bestetik, beste pertsona batzuek oraintxe bertan elikagaien beharra dute Larrialdi Egoera dela eta lanik gabe gelditu baitira. Arrazoi guzti hauek direla medio, elikagai bilketa auzoetan egitea eta deszentralizatzea berehalako beharra iruditzen zaigu. Horregatik, Harrera Saretik Udalaren laguntza, Zaintza Sareena eta boluntarioena eskatzen dugu.

**Komunikabideak.** 5. Buletina sareetatik eta komunikabideetara zabaldu da.

### BORONDATEZKO BALIABIDEEN ESKERA ETA ERANTZU SOLIDARIOAK

Eskerrak eman nahi dizkiegu boluntario eskaini diren pertsona guztiei, bai aterpetxeetan bai beste laguntzetan.

Ekarpen ekonomikoari dagokionez, atzoko diru-laguntzak kontuan edukita jada 118 pertsonen lagundu gaituzte. Guztira, 6 egunetan 6.637€ lortu ditugu.

Ostalaritzan, egunero Gandarias eta Pandorak laguntzen jarraitzen dute.

Telefono mugikorren beharra dugu oraindik.

### Donostiako Hiritarron Harrera Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia

**Kontaktua:** [redacogidaciudadana@gmail.com](mailto:redacogidaciudadana@gmail.com) 672 95 20 66 / 675 71 53 15

**Ekarpenak:** cc ES44 2095 5013 70 9119577666

**ZABAL EZAZU, helarazi zure ekarpenak, iradokizunak, salaketak.**